

# 2017-2018ko URTEA

## Kolegioko tarifak - Diru alorreko araubidea

*Eskolako buraso maitea(k),*

*Dokumentu honetan, San Bixenteko kolegioan ikasteko nahitaez ordaindu behar diren gastuen eta hautuzko gastuen xehetasunak aurkituko dituzu(e). Sartzearen prestatzeko dossier osoa ere aurkituko duzu(e). Dokumentu guzien irakurtzera animatzen zaitu(zte)gu.*

*Otoi, kolorezko orriak ekainaren 9ko (ostirala) kolegiara helaraz itzazu(e).*

*Hautatuko dituzu(e)n zerbitzuen kostuak urteko fakturan eskatuko zaizkizu(e). Kentze automatikoaren hautatzera ere animatzen zaitu(zte)gu, ikastetxearen kudeaketa lanak asko errazten baititu.*

*Bestenaz, eskatzen dizu(e)gu irailaren hastapenean berean jitea, urtea edo iraileko hilabetea ordaintzeko, zure/zuen hautuaren arabera.*

*Eskola urte bukaera ona desiratzen dizu(e)t.*

*Philippe Bancon  
Kolegioko zuzendaria*

<b>Dossierreko dokumentuak</b>	<b>Formatua eta kolorea</b>	<b>Kolegiora ekartzekoak, 2017ko ekainaren 9a baino lehen</b>
Kolegioko tarifak - Diru alorreko araubidea ( <i>paper zorro hau</i> )	A3 zuria	Ez
Familiaren hautua - Sustenguzko parte hartzea	A4 arrosa, aitzin eta gibelaldeak	<b>Bai</b>
Prezio apalduak	A4 urdina	<b>Araberako irabaziak dituzten familientzat</b>
Kentze automatikoaren egiteko baimena	A4 berdea	<b>Bakarrik lehen aldia baldin bada kentze automatikoa hautatzen duzula</b>
Mediku agiria eta argazkien baimena	A4 - izokin kolorea	<b>Bai</b>
Familiaren deitura-helbideak	A4 horia, aitzin eta gibelaldeak	<b>Bai</b>
Eskolako horniduren zerrenda	A4 zuria	Ez
2017-2018ko urteko egutegia	A4 zuria	Ez
<i>Téacoté</i> zerbitzuaren aurkezteko esku papera	A5 kolorezkoa	Ez
<i>Milesker dossier honetan diren eta idazkaritzara itzuli behar diren dokumentuei familiaren helbidea idatzia duten 4 gutun-azal tinbredun gehitzeagatik (burasoak bereiziak baldin badira, 4 gutun-azal gehiago, beste helbidea idatzirik)</i>		

## Nahitaezko gastuak

	6.a	5.a	4.a	3.a
<b>Familien parte hartzea</b>	400 €*	400 €*	400 €*	400 €*
<b>Agenda eta fotokopiak</b>	16 €	16 €	16 €	16 €
<b>Arte plastikoetako eta kiroleko kontsumigarriak</b>	4 €	4 €	4 €	4 €
<b>Fisika eta kimikako fitxategia</b>		5,90 €	5,90 €	5,90 €
<b>Frantseseko fitxategia</b>	5,90 €			
<b>Matematikako fitxategia</b>	4,5 €	0,9 €	0,9 €	0,9 €
<b>Biziaren eta Lurraren Zientzietako fitxategia</b>		5,20 €	5,20 €	5,20 €
<b>Nahitaezko gastuak, orotara</b>	<b>430,4 €</b>	<b>432 €</b>	<b>432 €</b>	<b>432 €</b>

Familien parte hartzea erabiltzen da higiezin alorreko inbestimenduari, ikastetxearen proposamen giristinoari eta diozesako eta Frantzia mailako Irakaskuntza Katolikoaren antolakuntzari lotu gastuen ordaintzeko.

\* Familien parte hartzearekin batean, ikasle bakoitzari tauleta numeriko bat prestatzen zaio. Familien parte hartze horientzat, bi prezio apaldu badira:

Prezio normala	400 €	6 000 € baino gehiagoko familia-kozientea
1. prezio apaldua	325 €	4 001 € eta 6 000 €-ren arteko familia-kozientea
2. prezio apaldua	250 €	4 000 € baino guttiagoko familia-kozientea

*Familia-kozientea = zergapeko irabaziak / parte kopurua*

*Argibide horiek mozkin zerga agiriko 2. orrialdean idatziak dira. Prezio apalduaz baliatzeko, familiek beren galdeari beren mozkin zerga agiria gehitu beharko diote.*

*Zergak Espainian ordaintzen dituzten familiek galdera dossier bat bete beharko dute, prezio apalduen eskuratzeko.*

Familia-kozienteak haur kopurua kontuan hartzen du. Halere, % 75eko beherapena ezartzen zaio 3. haurraren parte hartzeari eta 4. haurraren parte hartzea kitorik da.

Taulan aurkeztu gastuez gain, kontatu behar dira:

- **Eskolako ateraldiak eta egonaldiak -> Urtean zehar ordaintzekoak, proiektuen arabera**
  - Ateraldiak: "Extra-pedagogiko" horien zenbatekoa, orotara, urtean hamabost bat eurotara heldu da.
  - Eskolako egonaldiak: diru laguntzak edo ordaintzeko molde egokituak ezartzen ahal dira, ikastetxeko zuzendariarekin bildu ondoan.
- **Astearteetan 15:30etan proposatu gogoia pizteko jarduerak, urrian ordaintzekoak, familien hautuaren arabera**  
Jarduera horien kostua, guti gorabahera, 4 €-koa izanen da, aldi bakoitzeko.
- **Sakelako liburuak -> Urtean zehar ordaintzekoak, proiektuen arabera**

## Hautuzko gastuak

**Mantenu erdia** (jantegia)

**600 €/urtea**

**Urteka: 600 € urteko**, hots, **60 € hilabeteko**, 10 hilabetez (4,47 € bazkaria)

Mediku agiri bidez justifikatu eritasun batengatik, haurrak luzaz (4 egun baino gehiago, segidan) huts egiten baldin bada, mantenu erdiarentzat hunki diru soberakina itzultzen ahalko da, burasoek eskatuz geroz. Familia beste norabait bizitzera joaten baldin bada edo ikaslea ikastetxetik behin betiko kanporatuabaldin bada, itzuli beharreko dirua gertakari horien ondoko lehen egunetik kontatzen hasiko da.

Zor den dirua ez baldin bada behar den epean ordaindua, eta burasoek ekarri azalpenik ez baldin bada, ikastetxeak ondoko hiru hilabetekoan haurra mantenu erdian ez onartzeko eskubidea badu.

Familia abisatuko du, eskuratze agiria duen gutun artamendatu bidez.

**Kartaz:** 10 bazkariko karta: 48,00 € (4,80 € bazkaria)

**Txartelez:** 4,80 € bazkaria (aterabide hau salbuespenezkoa izan behar da)

## Eskolako hautuzko zerbitzuak

**Arratseko estudioa**

Astelehenetik ostiralera, 16:45etik 17h45 arte (ikastetxea 18:00etan hesten da) :

**3 edo 4 egun astean: 156 € urteko eta familiako**, edozein izanik haurren kopurua

**1 edo 2 egun astean: 78 € urteko eta familiako**, edozein izanik haurren kopurua

**Noizbehinka: 1€ arratseko**

Hiru hilabeteko izena ematea edo izena kentzea posible da, Eskolako Biziko zerbitzuari aipatuz.

**Papertegiko puska multzo bat** (ikus xehetasunak hemen lotu orrian)

**6.a: 34,5 €**

**5.a: 36,65 €**

**4.a: 37,45**

**3.a: 37,45 €**

Zinez gomendatzen dizuegu formula hori hartzea. Hari esker, ikasle guzietan material bera dute, prezio hoberenean.

**Arkatz zorroko hornidurak: 15,15 €** (ikus xehetasunak, hemen lotu orrian)

**iPad kita: 6,30 €** (estiletea eta entzungailua, ikus xehetasunak, hemen lotu orrian)

Urte bukaeran manatu hornidura oro fakturatua izanen da, familiak gibelera eginik ere.

## Sustenguzko parte hartzea

**Elkartasun kutxa bat**

San Bixente ikastetxeko taldearen xedea haurren eta burasoen beharrei beti eta kasu gehiago ematea da. Horregatik, *OGEC* erakundeak, ikastetxe katolikoaren kudeatzen duen erakundea izanik, ahal eta nahi duten burasoei proposatzen die sustenguzko parte hartzea ematea, elkartasunaren obratzeko. Nahi duten familiek ordaindu sustenguzko parte hartzeek beharretan diren familien laguntzeko elkartasun kutxa bat osatuko dute. 2016-2017an, elkartasun kutxa horri esker, 21 familia lagundu ahal izan dira.

Hunkia sentitzen bazara, zure parte hartzea jakinarazten ahal diguzu, lotu txartelari esker (orri arrosaren gibelaldean).

# **Irakaskuntza Libreko Ikasleen Burasoen Elkarteak (APEL)**

---

## **□ Burasoen elkarteko kide egitea: 25 € urtean**

Irakaskuntza Libreko Ikasleen Burasoen Elkarteak burasoak ordezkatzeko zuzendaritzaren, Irakaskuntza katolikoko erakundearen eta botere publikoen aitzinean. Ikastetxearen animazioan eta bizian aktiboki parte hartzen du eta familiei hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie, hala nola "Famille et Education" aldizkaria. Irakaskuntza Libreko Ikasleen Burasoen Elkarteak diruz parte hartzen du ikastetxeak ikasleentzat antolatzen dituen proiektu eta ateraldietan. Familiak borondatez sartzen dira elkarteetan. Kide bilakatuko direnei bazkidetza ere eskatuko zaie parte hartze agirian

## **Beste**

---

### **□ Eskolako garraioa**

- Frantziako alderdian, Euskal Elkargoak antolatzen du (argibideak eskolako biziko zerbitzuan)
- Espainiatik abiatzean garraiolari pribatu batek ikasleen garraioa segurtatzen du, ordainduz (Irungo *AUIF* enpresa, guti gorabehera 70€ hilabetean, joan-jina).

### **□ Eskolako argazkiak**

- Irailaren bukaeran, argazki profesional bat etortzen da ikastetxera eta haurrak eta nahi duten anai-arrebak argazkitan hartzen ditu. Gero, argazkiak nahi dituzten familiei saltzen zaizkie.

## **Diru alorreko moldeak**

## **Ordaintzeko moldea - Kentze automatikoa**

---

Ikastetxeak kentze automatikoz ordaindua izatea nahiago luke.

Kentze automatikoak hilabete bakoitzeko 6aren inguruan egiten dira, urritik uztail arte (10 epemuga). Aitzineko urteko kentze galdeak automatikoki berritzen dira.

Kentze automatiko galde edo banku kontu aldaketa oro hilabete bakoitzeko lehena aitzin seinalatu behar da, hilabete hartan berean kontuan hartua izateko.

Kentze automatikoa gibelerara igorria baldin bada, banku gastuak parte hartze agirian gehituko dira.

Kentze automatikoa bi aldiz segidan gibelerara igorria baldin bada, kentze automatikoak geldiaraziko ditugu eta galdeginen dugu idazkaritzan zuzenean ordaindua izan dadin.

Kentze automatikorik ez baldin bada, ordainketa ikastetxeari helarazi behar zaio hilabeteko 15a baino lehen.

## **Ordaindugabeak**

---

Ordaindugabeko diruaren eskuratzeko beharrezkoak iduri zaizkion urrats guztiak egiten ditu ikastetxeak. Gainera, ordaindugabeko zorrik baldin bada, ikastetxeak ondoko urtean ikaslea ez onartzeko eskubidea badu.

## **Burasoen egoera ekonomikoaren arabeko beherapenak**

---

Laguntzak badira egoera ekonomiko ahulean diren familientzat.

### **Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluaren laguntza**

Departamendu Kontseiluak laguntza berezia ekartzen die eskola sartzeko diru laguntza (*ARS*) eskuratzen duten mantenu erdiko ikasleei. Laguntza hori 25 €-taraino joan daiteke, hiru hilabeteka. Bekak dituzten ikasleek laguntza hori automatikoki hunkitzen dute. Eskola Sartzeko berme agiria galdegina izanzen zaizue. Burasoek dokumentu hori abuztuan eskuratzen dute, edo *CAF* kutzari zuzenean eskatzen ahal diote.

### **Hezkuntza Ministerioko beka**

Frantziako estatuak familiei ematen dien diru laguntza bat da, familiek galdeginez geroz. Haren zenbatekoa burasoen urteko irabaziei lotua zaie. Kolegioko Eskolako Biziko zerbitzuko Vicien anderea zure errezibitzeko prest da, zure irabaziak beka eskuratzeko heinekoak direnez jakitera laguntzeko. Eskaera dosierak betetzera laguntzen ahal zaitu. Irailaren bukaera aitzin itzultzekoak dira. Beka 80 €-ren eta 350 €-ren artekoak dira, urteka.

### **Ikastetxeko elkartasun kutxa**

Ikastetxean elkartasun kutxa bada. *OGEC* erakundearen funtsek eta nahi duten familiek ematen dituzten parte hartze gehigarriek dute elikatzen.

Laguntza eskatzeko dosierretan, ondoko dokumentuak bildu behar dira:

- Eskaera idatzia eta argumentatua, eskatzen den diru laguntzaren zenbatekoa zehazten duena.
- Burasoen azken zerga agiriaren fotokopia
- Idazkaritzan hartu behar den argibide fitxa.

Dosier osoa idazkaritzan utzi behar da, gutun zigilatuan, 2017ko irailaren 30ean, berantetik. *OGEC* erakundeak dosierak norenak diren jakin gabe aztertuko ditu tratamenduaren alderdikierarik eza segurtatzen duen prozedura bati segituz. Erantzun bat emana izanen da.

*OGEC* erakundeak segurtatzen du emanen zaizkion argibideen konfidentzialtasun osoa.